



Bartzelonako Adierazpena. Lurra: Bizi Kalitatea

Klima-aldaketak, produkzio-sistemen areagotzeak, nekazaritza-lurrak uzteko joerak eta urbanizazio-prozesuek ekosistemen gaineko presioa handiagotzea eragin dute, eta, horren ondorioz, biodibertsitatea eta zerbitzu ekosistemikoak galtzen ari dira Europan.

Lurra, guztion ondasun gisa, baliabide mugatua, kaltebera eta hauskorra da, ez da iraunkortasuna bermatzeko moduan erabiltzen, eta gero eta urriagoa eta elkorragoa da;

Garapen ekonomikoaren eta ingurumenaren iraunkortasunaren arteko oreka eta bateragarritasuna aurkitzea beharrezkoa eta premiazkoa da zerbitzu ekosistemikoak bermatzeko, biodibertsitatearen galera murrizteko eta gure luraren ondare natural eta kulturala babesteko;

Erakunde publikoek naturaren babesa bermatzeko beharrezkoak diren legegintza- eta finantza-mekanismoak eskaini behar dituzte, eta gaur egun kontserbazioaren alde bultzatzen diren politikak eta neurriak funtsezkoak dira natura babesteko, baina ez dira nahikoak;

Ondare naturala kontserbatzeko erantzunkidetasunak eta elkarrekikotasunak sustrai historikoak dituzte, gizarteak beti elkartu eta antolatu baita kolektiboki baliabide naturalak, ura, larreak edo basoak era iraunkorrean kudeatzeko;

Lurraldearen zaintzak, zentzu hertsian, "lurra zaintzen duten pertsonak" esan nahi du, eta estrategia horrek, alde batetik, jabeak eta erabiltzaileak borondatez eta eraginkortasunez inplikatzeko dituzten naturaren eta paisaiaren kontserbazioan (Natura 2000 sareko eremuak barnean hartuta), eta, bestetik, baliabide naturalen kudeaketa iraunkorrerako erantzunkidetasun indibiduala eta komunitarioa sustatzen du eta kontserbazio-jardunbideak ohiko eremu babestuen mugetatik kanpora eramaten ditu;

LandLife proiektua Europako bost erakunderen arteko aliantza gisa hasi zen, Komunikazio eta Informazioko LIFE+ proiektu baten bidez, eta lurraldearen zaintza bultzatzea zuen helburu, natura eta biodibertsitatea eskualdean zein Europa osoan kontserbatzeko tresna baliagarria zelakoan;

Hori guztia dela eta, honako hau aldarrikatzen dugu:

(1) Europa osoan lurraldea zaintzeko jardunbide eta jardueren bidez elkartasuna eta lankidetzak bultzatuko dituen **Lurraldea Zaintzeko Europako Mugimendu** bat garatu behar da.

(2) elkarteen, erakunde publiko eta pribatuena, nekazariena, jabeena eta herritarrena arteko **lankidetzak**, lurraldearen zaintza aplikatzearen bidez, luraren erabileraren kudeaketa aldatzea eta **Europako habitat, espezie eta baliabide naturalen babesa eta paisaiaren osotasuna eta edertasuna bermatzea** du helburu, **Eremu Babestuen Europako Sarea (Natura 2000) bereziki kontuan hartuta.**

(3) **Lurraldea Zaintzeko Europako Mugimendu** horren bidez, lurraldearen zaintza sustatu nahi da **eskualdeko, estatuetako eta Europako politikan, eta espazio publiko eta pribatuak kudeatzeko Europako estrategia** bat zehaztu nahi da.

Halaber, honako hau adierazten dugu:

Gu, behean sinatzen dugunok, bat geroz Adierazpen honen printzipioekin, eta konpromisoa hartzen dugun bertan adierazitako helburuak lortu eta ekintzak egiteko lanean jarduteko;

LandLife partners:



Subcontractor:



Generalitat de Catalunya
Government
of Catalonia



Adierazten dugu **lurraldearen zaintza sustatu** behar dela; horretarako, zaintza hori estatuetako eta Europako politiketan txertatu behar da, eta gure eskualde eta herrialdeetan garatu eta ezartzeko aukera sustatzeko konpromisoa hartu behar dugu;

Adierazten dugu **eskualdeko, estatuetako eta Europako estrategiak eta metodoak** garatu behar direla **erantzunkidetasuna sustatzeko** eta lurraren jabe eta erabiltzaileen, erakunde publiko eta pribatuen, erakundeen eta herritarren **konpromisoa** lortzeko;

Adierazpen hau Lurraldea Zaintzeko Europako Sarea sortzeko ibilbide-orria izango da, eta honako helburu hauek izango ditu:

- “LandLife” izeneko Europako LIFE+ proiektuaren bidez hasitako lanarekin jarraitzea;
- Europako lurraren kudeaketan eta natura eta biodibertsitatearen kontserbazioan erreferentzia-puntu izatea;
- lurraldearen zaintzaren inguruko esperientzien eta jardunbide egokien elkartrukea bultzatuko duten proiektuak garatzeko eta elkarrizketarako plataforma bat sortzea;
- bi urtean behin Lurraldearen Zaintzaren Europako Astea antolatzeke aukera sustatu eta bultzatzea, eta aste hori Europar Batasunaren jarduera ofizialtzat hartzeko lan egitea;
- Lurraldearen Zaintzaren Europako Biltzarraren etorkizuneko edizioak antolatzea;
- zaintza-jardunbideen Europako inbentario bat sortzeko aukera sustatu eta babestea, eta ikuskatzeko mekanismoak txertatzea, jardunbide eta akordio horien kalitatea hobetzeko;
- zaintza-etiketa bat sortzea, lurraldea zaintzeko akordioak dituzten lekuetako produktu eta zerbitzuak babesteko.

Adierazten dugu lankidetzan jardun behar dela lurraldea zaintzeko mugimenduaren eta haren ekintzen aintzatespen instituzional eta politikoa lortzeko, eta, beraz:

- lurraldearen zaintza lurra kudeatzen eta natura espazio publiko zein pribatuetan kontserbatzen laguntzen duen tresna eraginkor gisa sustatu eta aintzatesteke eskualdeko, estatuetako eta Europako neurriak garatzeko;
- lurraldearen zaintza bermatzeko eta zaintzaren eraginkortasun juridikoa handitzeko beharrezkoak diren baldintzak errazteko;
- Europako Batzordeak naturaren eta biodibertsitatearen kontserbazioari eta ingurumen-politikari dagokienez estatu kideei proposatzen dizkien gomendioetan lurraldearen zaintzaren aldeko neurriak esanbidez txertatzeko aukera sustatzeko.

Beste erakunde batzuk animatu nahi ditugu Adierazpen hau sinatzera eta, Lurraldea Zaintzeko Europako Sarea zabaltzeko helburuarekin, beste alderdi interesdun batzuk inplikatzera.

Sinatzaileen zerrenda

LandLife partners:



Subcontractor:

